



ONDORIOAK eta ERRONKAK

Ikuspegi sistemiko eta ekofeminista falta

Landa eremuaren **kudeaketa ikuspegi murriztailetik** egin izan da. Halaber, erabakiak landa-eremutik landa-eremuarentzako begiradatik hartu behar dira, eredu ekofeministaren ezaugarri diren **ekodependentziak** eta **interdependentziak** kontuan hartuta.

Nekazal bizimodua eta denboraren kudeaketa

Baserriko bizimodua, gaur egungo **bizimodu urbanoan** gehien baloratzen diren aspektuekin (denbora libre, kontsumo irrazionala, gizarte indibidualista...) erabateko **talkan** aurkitzen da.

Azken urteetako **digitalizazioak** eta **burokraziaren konplexutasunak denbora** gehiago **kendu** die emakume* baserritarrei.

Jakintzaren eta inguruaren zaintza

Zarauzko **kaletarrek** landa eremua bizitzeko, begiratzeko eta babesteko adierazpenetan **ezjakintasuna** erakusten dute.

noren ardura da amaren etxea zaintzea? Landako emakumeak*, historikoki, euren inguruaren zaintzaile izan dira, maiz modu ikusezin eta aitortzarik gabe.

Etorkizuna

Politika publiko instituzionalek eta herritarrek landa-eremuarekiko duten **deskonexioak** landa eta kalearen arteko **premiazko elkarrizketa** eskatzen dute landa-eremuaren **etorkizuna sustatzeko**.

Landa-eremuko emakumeen* arteko **harremanak estutu** behar dira, eta **behar komunei** modu antolatuan **erantzuteko gaitasuna** eraiki.

Lan hau Zaruzko landa eremuko emakumeengana* hurbiltzeko desiotik sortzen da. Desioa euren errealitatea ezagutzeko, bizimodua eta ibilbidearen aitortza egiteko eta beharrei bozgorailua jartzeko. Horrela, desio hori, ikerketa helburu zehatz batean bihurtu da: Zarauzko

landa eremuko emakumeen* datu eta

bizipenetatik abiatuta Zarauzko

landa eremuko emakumeen*

arlo sozio-ekonomiko,

sozio-kultural eta

politikoaren

erradiografia

bat egitea.

Abiapuntuko datu batzuk...

- Azken 25 urtetan %42,1 jaitsi da landa-guneko biztanleria Zarautzen. Egun, biztaneen %1,7 inguru bakarrik bizi da landa-gunean, eta horietatik ia erdia dira emakumeak*.
- Landa eremuan zaintza-lanen feminizazioa dago oraindik, eta genero arteko aldeak handitu dira.
- Landa eremuko emakumeen* enplegu tasa gizonetzkoena baino txikiagoa da (%51,6 eta %60,6, hurrenez hurren). Lanaldi partziala batez ere emakumeetan ematen da.
- Zarautzen, lehen sektoreko ustiategien emakumeen* titulartasuna gizonetzkoen titulartasunaren erdia da.



DEKALOGOA

Entzun Udala ...

1. Landa eremuko bizilagunen bizimodurako **errepideak** modu egokian izateak duen garrantzia aintzat hartu, eta ondorioz beharrezko hobekuntzak egitea.
2. **Landa eremuaren babes publikoa**. Zentzu horretan landa lurren artifizializazioa ekiditu eta kasuan kasu industrialdeak eraikitzeak tokiko bizimoduan dituen inpaktuak ekidin: zaratak, trafiko trinkoa...
3. **Landa eremua bizirik** mantentzea Zarautz bizirik mantentzea dela jabetzea.
4. **Merkatuaren aldeko apustua** egitea eta merkata indartzeko inbertsio eraginkorrak ezartzea. Bertan saltzen dutenentzat erraztasunak jartzea, eta kontsumoa sustatzeko alternatibak lantzea, merkata gal ez dadin.
5. **Tokiko produktuari balioa ematea eta bere kontsumoa bermatzeko erosketa publikoa tresna gisa erabiltzea** (zahar-egoitza, haur-eskola...jantoki kolektiboentzako plegu publikoak tokiko eta jasangarriak diren irizpideekin egitea).
6. **Auzo-festak antolatzeko baliabideak eta baldintzak** jartzea: tramiteetan erraztasunak, gastuak garaiz ordaintzea, baliabideak jartzea,...
7. **Landa auzoetan baliabide komunitarioak** bermatu: adibidez parkeak jartzea.
8. **Baserria mantentzen dituztenei erraztasunak** eman; jarduerarekin jarraitzeko baserri inguruan terenoak izatea bermatzea.

9. Bisitariekin sortzen diren talkak

saihesteko baliabideak jartzea (errespetorako dei egiten duten karteldegia, seinilazio egokiak, hezkuntza eta sensibilizazioa, balioan jarri...)

10. Landa eremura zintzoki

hurbiltzea gertutik ezagutzeko bertan bizi diren errealitatea. Landa eremuari lotutako erabaki politikoetan begirada sistemikoa barnertzea.

Entzun herritar ...

- 1.- **Landa eremuarekiko konexioa berreskuratu**. Landa eremuko bizimodu eta jendartea baloratzeko eta errealitatea ezagutzeko ahalegina egitea.
- 2.- **Kontsumo kontzientea landu**. Zarautzeko azokan kontsumitu, merkatu plaza indartuz, besteak beste, herriko lehen sektorea bultzatzen dugulako.
- 3.- Landa eremura bisitan zatozenean, landa eremuko **jendeak eta bizimoduak errespetatu**.

ZARAUZKO LANDA EREMUKO EMAKUMEEKIN* BERRIKETAN

ENTZUN, JASO ETA EKIN!

2024 IKERKETA LANA

IKERTZAILEAK:



FINANTZIATZAILEA:

